



HEZKUNTZA SAILA

EBAZPENA, 2021ko irailaren 17koa, Lanbide Heziketako Sailburuordearena, Erasmus+ programaren esparruaren barruan, Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko dirulaguntzak aldatzen duena.

2020ko uztailaren 14ko aginduak, Hezkuntza Sailburuarena, Erasmus+ programaren esparruaren barruan, Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako KA1 mugikortasun ekintzak antolatu eta garatzeko diru-laguntzak arautu zituen.

Halaber, aginduaren bitartez, 2020-2021 ekitaldirako deialdia ezarri egin zen.

Ondorioz, 2020ko azaroaren 12ko ebazpenak, Lanbide Heziketako Sailburuordearena, Erasmus+ programaren esparruaren barruan mugikortasun ekintzak antolatu eta garatzeko diru-laguntzak ebatzi izan zituen. Halaber, bere I. eranskinean erakunde onadurak eta haien diru-laguntzen zenbatekoak aipatu ziren.

Hori guztiagatik, aipatutako arauen arabera eta aplikazio orokorreko gainerako arauen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.-

2020ko azaroaren 12ko ebazpena, Lanbide Heziketako Sailburuordearena aldatzea, I. eranskinean aipatzen diren erakundeei emandako diru-laguntza murriztuz. Ebazpen honen bidez, Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako KA1 mugikortasun ekintzak antolatu eta garatzeko diru-laguntzak eman izan ziren, Erasmus+ programaren esparruaren barruan.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Sailburuari, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021ko irailaren 17an.

Jorge Arévalo Turrillas

Lanbide Heziketako Sailburua

JORGE AREVALO
TURRILLAS -
15914803E

Firmado digitalmente
por JORGE AREVALO
TURRILLAS - 15914803E
Fecha: 2021.09.20
10:30:27 +02'00'



DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes
Avanzados

HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza
Aurreratuen Zuzendaritza

I. ERANSKINA / ANEXO I

ERAKUNDEA / ENTIDAD	IFK / CIF	KONTRATUA / CONTRATO	HASIERAKO DIRULAGUNTZA SUBVENCIÓN INICIAL (12/11/2020)	AMAIERAKO DIRULAGUNTZA SUBVENCIÓN FINAL (17/9/2021)
GIPUZKOA				
ESCUELA DE CINE Y VIDEO SL	B20462057	2020-1-ES01-KA103-078401	11.148,70 €	1.117,66
BIZKAIA				
HETEL-Heziketa Teknikoko Elkartea	G48409205	2020-1-ES01-KA103-078155	97.449,13 €	0,00
ASESORAMIENTO Y FORMACION IKASAUTO SOCIEDAD LIMITADA	B95096244	2019-1-ES01-KA103-060987	6.923,93 €	0,00